

FUNTSEZKO ELKARTEAK

APPENDENTZIA negozio-proiektua gauzatzeko, edozein negoziorekin gertatzen den bezala, beharrezkoa da kanpoko laguntza izatea. Ezinezkoa da lortu nahi diren helburuak lortzea, arrakasta izatea eta merkatua behar bezala zerbitzatzea hirugarrenekin elkarreragin, negoziatu eta lankidetzan aritu gabe. Hori dela eta, aliantzak funtsezkoak dira. Izan ere, haiek gure negozioa ahalik eta errentagarrien egiteko aukera emango digute, arriskuak murriztuz eta baliabideak eskuratuz.

Gure kasuan, LEZAN S.L. enpresako bazkideok (Izaro Bilbao, Ane Deahora eta Leire Marcelino) funtsezko pieza gara arlo komertzialean, marketin publizitatean eta diseinu digitalean. Zehazki, bakoitza arlo batetaz arduratuko da:

- Izaro Bilbao merkatua irekitzeaz arduratuko da, merkataritza arloa ardatza izanik.
- Ane Deahora harreman publikoak kudeatzeaz arduratuko da, sare sozialak oso ondo ezagutzen dituelako, eta komunikazio kanal desberdinak antolatuko ditu, marketinean eta publizitatean ardaztuz.
- Leire Marcelinok bere sormena erabiliko du diseinurako, emotikonoak sortzeko... Ardatza diseinu digitala izango da.

Baina LEZAN S.L.-ko bazkideez gain, APPENDENTZIA aplikazio informatiko batean oinarrituta dagoenez, ezinbestekoa da funtsezko hornitzaile batekin aliantza bat sortzea. Aplikazioak daraman teknologiak hornitzaile espezializatu bat behar du, aplikazioaren betekizunak segurtasun osoz beteko dituena. LEZAN S.L.-ko bazkideok programatzaile informatikoak ez garenez, enpresa bat azpikontratatu dugu garapen informatiko osoa egiteko. Zerbitzuaren kalitateaz gain, gastua ere kontutan hartu dugu eta COMPUTATA S.A. enpresa aukeratu dugu. Izan ere, Leire Marcelinoren aitak lan egiten duen enpresa da eta horrek %40ko aurrezpena ekarriko du. Beraz, COMPUTATA S.A.-k APPENDENTZIA aplikazioa ezarri, garatu eta mantentze lanak egingo ditu.

Bestalde, APPENDENTZIA-k telelaguntza integratutako sistema bat du segurtasuna bermatzeko. Horretarako, beste enpresa bat azpikontratatu beharrian, Gurutze Gorriarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin harremanetan jarri gara (e-mail bat bidali diegu eta erantzunaren zain gaude). Erakunde horiek funtsezko aliantza "izango lirateke", eginkizun hori duten programak garatuta baitituzte. Oraindik erantzun ez diguten arren, uste dugu negozio-ideia hau gauzatu balitz, baiezko erantzun bat emango liguketela izaera sozialeko aplikazioa baita.